

Maiatzeko udal hauteskundeetan, Eusko Alkartasuna, Herri Batasuna eta PSOEek bat egin zuten Baztango Udalean Patxi Oiarzabal (EA) alkate izendatzeko. Zenbait lekutan elkar ikusterik ez duten alderdiek funtsezko arrazoi bat zu-

ten Baztanen ados jartzeko: «bertze horiek». Union Baztanesakoek, «bertze horiek», azken zortzi urteotan eduki duten gehiengo absolutua galdu dute eta Baztan larri berri eta abertzaleekin esnatu da.

Baztan larri berriekin

ANA UNANUE / ELIZONDO

«Jendea ohartu da behar dela bertze modura egin gauzak». Hitz hauekin argitu nahi digu Mariano Izeta Elizondoko semeak, Baztanen gertatutakoa maiatzeko udal hauteskundeetan.

Azken zortzi urteotan alkatetza bere esku eduki izan duen Union Baztanesak zazpiehun boto eta bi zinegotzi galdu zituen orduan. Eusko Alkartasunak gora egin zuen eta lau zinegotzi lortu zituen; Herri Batasunak beren biak mantendu zituzten eta PSOE, zinegotzi batekin, aurrenekoz sartu zen bailarako Udalean.

Emaitzak itxaropentsu ikusi zituzten baztandar askok, beste hiru alderdiek bat eginez gero, UBk alkatetza gal zezakeelako. Eta horrelaxe gertatu zen, HBk eta PSOEek EAKo Patxi Oiarzabalen alde emadako botoei esker. Maiz erabakiak zerbaiten alde baino, norbaiten kontra hartu ohi dira eta antzeko zerbait gertatu zen Baztanen. Ideologiaren gainetik, argi zuten norik ez zuen agindu behar hamabost herri osaturiko Udalean.

«LAU LAGUNENTZAKO AGINTEA» UBren bi lege-gintzaldiak zer izan diren laburbilduz azaltzeko, «lau lagunentzako agindu dute», dio Amaiurko Paskualek.

UB, independentea izenez eta UPN-PP izatez, haraneko jaun eta jabe izan da urteotan. Iturralde eta Elizalderen garaian, botere guztia Udalak bereganatu omen du, herrietako alkate-juradok eta haraneko Batzar Nagusia ahalmena galduz joan diren heinean. Izan ere, «alkate-juradok betidanik abertzaleagoak izan dira», Amaiurkoaren iritziz.

UBren «lorpenen» artean, herriarren mesfidantza aipatu behar da. Baztandarrek, Paskualek dioenez, «pagatzera joaten dira Udalera», ez zerbitzu edota laguntza bila. Agintariei aurre eginez gero, gauza bixiak gertatzen omen ziren: «esate baterako, bide bat konpontzen ari baziren, zure etxe parera iristerako, aurrekontua agortu egiten zen eta hor konpon».

Herritarrek ez ezik, herriekin ere jokabide desberdina zutela dio Paskualek, beti ere han lortutako botoen arabera. Amaiurrek, kasu, «gorritxo» zela eta, bertakoekin diruarekin eta auzolanarekin atera zuen aurrera frontoia. Irurritakoa eraikitzeko berriz 86 milioi pezeta (4,3 milioi libera) jarri zituen Udalak. Kasu larriagoak ere izan dira, urik gabe egon diren Zozaiako auzokideena bezala.

Hala ere, ezin da ahaztu UB oraindik bailarako lehen indar politikoa dela. Horren zioa, Amaiurkoa-



Patxi Oiarzabal Baztango alkatea.M.E.

ren ustez, nekazarien izaera kontserbatzailea izan daiteke.

ATEAK GUZTIEI ZABALDU Udal berriak ekar dezakeena epaitzeko goizegi den arren, joan zen igandeko Baztandarren Biltzarrean izan zirenek giro aldaketa igarri ahal izan zuten. Udalak dirulaguntza agindu die antolatzeileei eta ofizialki hartu zuen parte eguneko ekitaldietan. Udalak lau bandera zituen balkoian —Baztangoa, Nafarroakoa, ikurrina eta espainola— eta, zortzi urteko etenaren ostean, atak zabaldu zituen jende guztiarentzat.

Hori da, hain zuzen ere, Baztango Udalaren erroka datozen urteotako: atak zabaltzea, baztandarren perestroika egitea.

Festak termometro ezin hobea izaten dira agintariak neurtzeko eta Pedro Mari Esartek, Elizondoko alkateak, ez du erreparorik izan Santioko jaiei hasiera emateko orduan. Nafarroako bandera eta ikurrina besterik ez zituen jarri Foruen plazako kioskoan eta «Gora Elizondo, askatuta» oihuaz bota zuen txupinazoa.



Beste doinua hasi da entzuten Baztanen.

MONIKA ETXEBARRIA

Esartek argitu zigunez, «Estatu espainoleko udal antolakuntzan ez gaudenez, nahi dugun bandera jartzeko luxua daukagu». Loles Iturzaeta kargodunaren hitzak ere nahiko esanguratsuak dira: «ez zenuke sinistuko nola aldatu den hau».

Aldatu beharrekoen artean, bailarako Batzar Nagusia azaltzen zaigu. Oiarzabal alkateak adierazi du dagoeneko alkate-juradoren lana indarberritzeko asmoa, baina, Esarteren ustez, oso zaila izango da hori. Bere hitzetan, «baikorra naiz Udal berriaren borondateari dagokionez, baina ez legegari begira. Eguneroko borroka izango da, legediak Udaletatik kanpo ez duelako kompetentziarik uzten».

ELKARBIZITZA BAZTANGO UDALEAN

Aurrerantzean, oso sentsibilitate desberdinetako alderdiak arituko dira Baztango Udalean. UBk alkatetza galdu arren, gobernu batzordean dago eta izango du zer esana.

J.M. Pedrosa, UBko zinegotziak, ez dio autokritikari betarik ematen. Bere ustez, galdutako botoek ez dute zerikusirik UBren gestioarekin, bai zik eta «kandidatura gehiago aurkeztu zirelako galdu genituen».

Bestetako ekitaldi ofizialetan parte ez hartzeaz, «ez gaituzte gonbidatu eta ez gara joan», dio Pedrosak.

Bere hitzetan, «ulertezina» da HB, EA eta PSOEren arteko akordioa. Hala ere, «uzten badigute, laguntzeko prest dugu», ziurtatu du.

Bestelako iritzia azaldu digu Martin Garde-k, HBko zinegotziak. Haren esanetan, UBkoek «ez dute deustarako kolaboraziorik eman eta ez dirudi gure dinamikan sartzeko prest daudenik. Ez dute ikusi beraiek dirrela huts egin dutenak herriekin eta jakin behar lukete badutela erantzukizunik Baztan aurrera ateratzeko».



Baztango agintariak eta Nafar Legebiltzarreko presidentea Elizondon. M.E.

Patxi Oiarzabal (EA): «Jendea nekatu egin da prepotentziaz»

A.U. / ELIZONDO

Hamahiru zinegotzitik lau besterik ez eduki arren, Eusko Alkartasunak bere zerrendaburua Baztango Udaleko alkatetza jartzea lortu du. Patxi Oiarzabalek, «gizon xaloa eta baliotsua» Mariano Izetaren hitzetan, bere esku izango du agintea datozen lau urteotan.

EGUNKARIA.— Zortzi urtez Union Baztanesaren esku egon den alkatetza, abertzalea da orain. Zerbait aldatzen ari da Baztanen?

PATXI OIARZABAL.— Udala behintzat aldatu da eta beste zenbait gauza ere alda daitezkeen ahaleginduko gara. Lehenik, Baztango euskal nortasuna berreskuratu behar dugu, galtzen ari bait zen. Aldi berean, premiazkoa da daukagun industria urria bultzatzea, eta, horri lotuta, komunikabideak hobetzea, Iparraldearekin bereziki. Hori dena etxebizitzaren sozialetan sustapena ahazteke.

EGUNKARIA.— Zazpiehun boto galdu dituen arren, UB bailarako lehen alderdia da. Errazak izango al dira harremanak?

OIARZABAL.— Boto galera garrantzitsua izan da UBrena. Guk aldiz boto ugari irabazi ditugu eta alderdi

berria sartu da Udalean, PSOE alegia. Zergatik? Azken urteotan jendea nekatu egin delako UBren prepotentzia eta nahiago izan duelako beste alderdi batzuei indarra ematea. Horregatik galdu dute besteek gehiengo absolutua. Elkarbizitzari dagokionez, printzipioz ez dugu arazorik izan beharrik UBekin. Batzordeak talde guztien artean banatu ditugu eta Gobernu batzordean ere denek dute ordezkaria.

EGUNKARIA.— Baztandarrek mesfidantza erakutsi ohi dute euren agintariengan. Hori aldatzerik lortuko al duzue?

OIARZABAL.— Zinegotzi guztiak eta neu ezagunak gara bailaran eta jendeak badaki noiznahi etor daitekeela arazoak planteatzera. Gure atak zabalik daude denentzat. Dena dela, herritarren hurbiltzeko bide egokiena alkate-juradok izan daitezke eta horien lana nahi dugu bultzatu. Orain arte herriko beste bakarrik arduratzen ziren, baina aurrerantzean bailarako agintean dagokien zatia utziko dugu haien eskuetan. Ildo horretatik, Batzar Nagusia indartzea premiazkoa da. Baztarrak hamabost herrietako alkateak biltzen ditu eta bere kompetentziak guztetan —ondare komunak, adibidez— Udalaren gainetik egon beharko luke. Herrietako kontuak alkateen bitartez bideratuko ditugu, horiek bait dira demokratikoenak —esan nahi dut zu zenkien aukeratzen dituztenak, jendearentzat ezagunagoak direlako—.

EGUNKARIA.— Zuen hizkuntz politikak eta ikurriaren erabilpenak arazoak ekar ditzake?

OIARZABAL.— Badakigu Udalean sentsibilitate arras desberdinak daudela eta denak errespetatuko ditugu. Baztandarren Biltzarrean egunean legezko bandera guztiak jarri genituen. Guretzat ikurriña garrantzitsuago da, baina jende askok ez du berdin sentitzen eta nik bailarako herritar guztien alkateak izan nahi dut. Hizkuntz politikari dagokionez, funtzionariak pixkanaka euskaldundu nahi ditugu eta seinaleak, eta abar elebidunak izango dira.

Hamabost herri, Udal bakarra

ELIZONDO

Elizondoko alkatea Oiarzabal ala Esarte den argi ez dutenentzat, ez da txantxetako guza Baztango antolamendua ulertzea.

Elbete, Berroeta, Arizkun, Erratzu, Aniz, Elizondo, Amaiur, Irurita, Gartzain, Almandoz, Azpilkueta, Arraioz, Ziga, Oronoz eta Lekarozek osatzen dute Baztan eta Udal bakarra dute, egun Oiarzabal alkate duena, alegia.

Bailarako alkatea eta hamahiru zinegotziak udal hauteskundeetan aukeratzen dituzte, beste leku guztietan bezala. Baina, Baztango alkateaz gain, bailarako herri bakoitzak bere alkate edo juradok du.